Txillardegiren Antigua

2019ko urtarrilaren 13an
Txilardegi plazan (Gaskuña)

Ibilbide gidatua, 11:00etan
Ekitaldia, 13:00etan

Mapa: 1900 inguruan

TXILLARDEGI
Udal Liburutegia

txilardegi.indd 1 08/01/2019 21:28:30

Gutenfelder moldiztegia eta etxea (1905ean eraikia)

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizpait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara;
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna,
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena.

txilardegi.indd 2 08/01/2019 21:28:30

SARRERA

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, bere obra erraldoiaren artean lan liluragarria egin zuen bere jaioterri kuttunari zegokiona: "ANTIGUA 1900" deitzen da lan hori, eta Dr. Camino Institutuak argitaratu zuen 1992 urtean. Lan honetan irakurleari hauxe proposatzen dio: "ez berak eta ez nik eskualde ilun bateraino laguntzea. Areago: sekula inork bisitatuko ez duen Euskal Herriko zoko apal galdu honetara joatea: Antigua zaharrera, hain zuzen; betirako suntsitua den Antigua ahantzira abiatzea. Eta Lugaritz eta Ibaeta auzo zaharrak elkartzerakoan suntsitu zuten urte urrunetan nirekin etortzea".

Horixe egingo dugu guk, geure apaltasunean, Txillardegik berak erakusten digun Antigua zaharra bere oroitzapenarekin batera bisitatu.

1. TXILLARDEGI PLAZA

Leku honetan zegoen Txillardegi etxea, eta hementxetik hartu zuen Jose Luis Alvarez Enparantzak intelektual donostiarrak Txillardegi gaitzizena. Berak esan zuenez, euskal usadio zaharrari jarraituz, sorlekuaren izena hautatu zuen.

"Oso-oso jende gutxi topatu baitut, are antiguatarren artean ere, nire gaitzizenaren gakoa ulerbiderik eskaintzeko modukorik".

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendeko hasieran Antiguako erdi-erdian zegoen etxerik ederrena zen Txillardegi etxea, jaun-andre ospetsuen, Gaskue-Iturria familiaren egoitza. Zenbait orubeen jabe zen famili hau inguru horretan.

2. GUTENFELDER

Hemen zegoen Gutenfelder moldiztegia, bost solairuko etxea, Jose Luisen jaiotetxea izan zena. Bere aitonak Federiko Alvarezek eraiki zuen 1905 urtean. Aurrean, ekialdera, Bazterretxe auzunea zegoen, hainbat etxe xumek osatuta: Herrerotegi, Isasene, Iñarrene... Lugaritz auzo aldetik; eta Kantoi, Sutegizar edo Ezkonberri, Zubiaurre... Ibaeta aldetik. Tartean zihoan Donostiatik Andoainerako bide zaharrak egiten zuen auzo arteko muga. Bazterretxeko 8-9 etxeetan jende asko bizi zen. 1917 urtean bota zuten.

Ekialdera jarraituz, Venganza (Mengantza ahoskatua) etxea zegoen, 1891 urtean desagertua.

txilardegi.indd 3 08/01/2019 21:28:30

3. ONDARRETA

Leku honetatik ikusmen zabala daukagu: mendebal aldera, Brunet oligarkak egindako txaletak daude. Kristalezko botila fabrika, futbol zelaia, tennisa eta Txillardegi jaio zen orubearen jabea izan zen Brunet. Aurrean, hondartza eta pasealekua; atzerago Satrustegi baroiaren etxea; kartzela zegoen bere azpialdean. Gorago, Marbil (Marmill ahoskatua). Txubillo mendia: 1912an eraikitako funikularra, ondoren eraiki zen jolas-parkea, eta Donostiako Kontsulatuak 1773an egindako itsas farola. Atzerago, Millabider, Gulamendi (ez Gudamendi) eta Igeldoko herria daude. Eta, nola ez, aurrez aurre Txillardegiren Santa Klara uharte kutuna.

4. LORETOPEA

Iparraldera, Loretopea (Punta del Antiguo, dokumentuetan). Donostiaren izena hemen sortu zen. Beste zenbait baserrirekin batera (Markosene, Martaene, Marrukas) monastegia zegoen hemen, 1546 urtean Alfonso Idiakezek eraikita beste zaharrago baten gainean. 1836ko abuztuaren 3an Karlistek erre zuten erretiratu zirenean. Lacy Evans liberalen aliatuak eta ingeles buruzagien aginduz, euskaraz idatziak badu interes berezirik: "Etsirik ya (galdu) biarco citustela San Francisco eta Antiguaco conventu ederrac, sutu eta erre cituzten."

Ordezkatzeko, beste eliz bat egin zen bere bikario etxea aurrez aurre zuela. Ez zuen hamarkada asko iraun. Ondoko urteetan proiektu gaitzak eskaini zitzaizkion lur mutur honi. Aurrena "hospederia balnearia" bat egiteko proiektua atzera bota zuten. Ordurako Maria Cristina erreginari lekua gustatu, lurrak erosi eta Miramar jauregi ederra eraikiarazi zuen, Selden Wornum arkitekto britainiarraren proiektua jarraituz. 1890 urtean estreinatu zen.

- TXUBILLO -

Nork ez du Txubillo tontorreko dorre hau ezagutzen? Mundu guztian barrena aurki daiteke Monte Igueldoko Torreoia noizpait bederen ikusi duenik.

...

Hots, eta hasteko, goiko herriari deritzo Igeldo; eta ez funikularraren makineria gordetzen duen Txubillo honi (eta ez bertako beste bi txubilloei ere, minuskulaz oraingoan).

Arrobi mendi-katearen kaxko honi, Txubilloz gain, Arri-mendi ere deitu izan bide zaio. Militar arrotzek beren alde Montefrío ere esan diote beren plano militarretan. Eta azken joan den mendean hor antolatu zen harri-erabilketa eskergarengatik, Arrobi izena

gaineratu zaio [baina hau, harrobiak luzera guztian hasi zirenez, Mendizorrotz-aino gutxienez]. 1863tik aurrera Donostiaren hedakuntzak, harri gehiago eta gehiago eskatzen zuelako.

Bego, beraz, Txubillo izendapena. Donostia-ko Consuladoak, itsas-farola gisa erabiltzekotan, 1773an eraiki zuenean, Kantauri-ko lainoen eta behe-lainoen maiztasuna gutxietsiz altxa bide zuen. [...]

Txubillo, beste alde batetik, eta esaten ahantzi baino lehenago, Ibaeta da; eta Antigua, beraz: Erroiegi, Millabider, Olarain, Mugitza, Arburu, Antigua-ko baserriak dira. [Ohar bat hemen ekologizaleen zerbitzu- tan: erroiak zeuden Txubillon bertan...]

...

Farola behin eta berriz jausi zen karlistan eskuetara lehenengo karlistadakoan; Donostiako liberalei eta Madrileko agintariei arazo larri bihurtuz.

Mikelete liberalek gogor eutsi zioten bigarren karlistadan; karlistak ordurainokoan dorreaz nagusi ezin zitezkeelarik.

Gure Txubillo hura labezomorroak baino itsusiagoa zen: soila, ia-ia etxerik gabea...

ANTIGUA 1900
Jose Luis Alvarez Enparanza, Txillardegi

5. MIRAMAR JAUREGIKO PARKEA

1887an Donostiara etorri zen Maria Cristina erregina, itsasoko bainuak hartzeko asmoarekin eta "Real Casa de Campo" deituriko jauregia egin zuen, eta beste hainbat eranskin altxatuta parke honen barruan: ofizioen etxea, kotxerak, zalditegiak; Illunbe baserria lehenagotik hor zegoen... Gaur desagertuak dira denak, atezainaren etxea izan ezik. Gaur egun Donostiako Udalak jauregia eta parkea zenaren eremuaren erdia eskuratua dauka.

6. GORGATXO

Antigua Zaharreko erdigunean da leku hau. Hemen ditugu eliza-parrokia 1889an estreinatua. Dorrea Loreton zegoen eliza zaharrekoa da, harriz harri lekuz aldatua. Loreton gelditzen ziren eraikuntzetatik oroitza bakarra da. Hemen zegoen Gorgatxo baserria, izen bereko errekaren ondoan. Hemen, baita ere, Miramar jauregiko zalditegi erraldoiak. Hemendik gora zihoan Muntorako estrata, Soldaduene, Txirain, Untzene, Portuene baserrietatik zehar zihoana. Hemen dira gaur oraindik auzoko merkatua zena, frontoia eta 1919an estreinatutako Arantzazu auzunea.



txilardegi.indd 6 08/01/2019 21:28:33



txilardegi.indd 7 08/01/2019 21:28:35

Eta Muntto eta Untzaene utzi nituen atzean, han gainean, Aieteko partean; eta ni Txantxerreka-tik behera jaitsi.

Eta Caviedes eta Errege-Jauregiaren arteko bideska ilun bustia hartu nuen.

Eta ez dakit poesiak ala beldurrak ikutu ote ninduen goiz hartan; baina metafisika, amets iruditu zitzaidan, eta ametsa, egia nabarmen eta sukartsu. Eta beste oroitzapen guztiak baino aisa lehenagokoa eta zaharragoa da nigan Txantxerreka-rako bideska ilun hertsitik pasa nintzen goiz haren oroitzapen harrigarria; neure denboren haseran bertan pasea bainintzen.

Banindoan beraz Iparralderuntz bideska ilunean barrena, Txantxerrekako mazela leunak atzean utzirik.

Hiru metro gora zituen eskuin aldeko paretan, goroldio apala ageri zen nagusi. Ezkerrekoan, berriz, teila gorri histu eta zaharkituek gaintzen zuten, eta ez beti, Jauregiarekiko berez-hesia; eta halako teilatu kutsuko erpin luze bat osatzen.

Ezkerraldeko harresi honen gainetik, lizundurik, tarteka arraildurik eta zaharrakaturik, teilatu aldatsetan han-hemenka teilazko estalkia biluzturik, betidanik misteriotsu jotzen nuen Miramar-Jauregi gorria aurkitu nuen.

Bideskaren gainean, berriz, benetako estalpe gisa, zerua erabat izkutatuz, erramu baso trinko bat zegoen; eta, harri mokorrezko zoruan sakabanaturik, txit zimeldurik eta horiturik, blai ere eginik, hosto luze arraultzaire asko eta asko ikusi nuen.

Enbor zahar pare bat ere topatu nuen bidearen bihurgune batetan; eta bide hertsia, bide bustia, bide labaina, luze inoiz baino luzeago atxeman nuen.

Eta, halako batez, ni ordurako berantetsirik, amaitu egin zen zuhaitzezko tunela; eta aurrekaldetik, Kontxako kolkoa agertu zitzaidan, urdin, bidearen irtenguan zoragarri. Eta Urgull maitatua eta Santaklara uhartea ikusi nituen.

Eta, ezkerraldetik, Jauregiaren murru gorrien ilararen atzetik, adriluzko laberinto xarmagarria inguratuz, Txubillo tontorra ikusi nuen; eta funikularea, memento hartantxe gora ari, eta dorrea gailen... Eta Loreto-peko puntta ene aurrean ageri; lehen bezalakoxea...

Eta liluraturik gelditu nintzen.

Argiturik... berriz ere... bidaia!

Eta atzera begiratu nuen. Eta zauskada latz batek inarrosi ninduen bortizki.

Eta Errege-Jauregiaren etxe, eta etxetxo, eta ukuilu, eta batimendu gorri desberdinak oro zuhaizpearen trinkoan eta beltzean ene aurrean bertan ezabatzen zirelarik, Txantxerreka-ko bideska izkutua begiratu nuen azkeneko aldiz: beltz, mehar, beldurgarri.

Eta betirako debekaturik zegokidala konprenitu nuen.

HAIZEAZ BESTALDETIK
Jose Luis Alvarez Enparanza, Txillardegi

7. ARANALDENE

Hemen zen Aranaldene baserria eta ondoan eraiki zen Villa Arcadia, gure alboan daukaguna. Bertan zegoen Villa Maria, 1918tik aurrera Gurutze Gorria dena. Hemen hasten da Heriz-Cornejotarren jabegoetarako bidea eta goian Toki-Eroso Roque Herizen jauregia. Bertan ziren mutilen eskola publikoak, Guardia Zibilaren kuartel erraldoia. Hemen, Arcadian, Txarola zinema. Burdinezko bide seinalea da gelditzen den oroitza bakarra.

8. SANTUSTENE

Donostiatik Andoainerako bide zaharrean gaude. XVII. mendearen erdiko bide hau Lugaritz eta Ibaeta auzoen erdiko muga zen. Ezkerretara, Lugaritz eta eskuinetara, Ibaeta. Goian Gerrene baserria eta Lugaritz oinetxea zeuden. Eskuinetara, hemen ondoan, Munibe, Peñaflorida kontearen etxea. Ezkerretara, hemen ondoan ere, Santustene (Sansustene batzuentzako) etxe ederraren finka gordetzen zuen atezainaren etxea zegoen.

9. LOPEXENE

Bentaberri deituriko plaza biribilaren hertzean zegoen Lopexene, Eguzkitza ere deitua. Plazaren azpialdean Errota-Aundieta zegoen, Antiguako marea-errota bakarra; bere ondoan, berriz, Loietako zubia, Konportarako bideak iragaten zituena. Lopexene zen Antiguako sarreran zegoen aurreneko etxea. Bere ondotik igarotzen zen Tolosa, Iruña, Bilboko errepide nagusia, XVIII. menderen erdi aldera eraikia, eta Ibaetako zingira ertzetik zihoana. Bere aitzinean, Lizarriturri-Rezola, 1864 urtean estreinatutako kandela eta xaboi fabrika handia zegoen.

Donostiako sarrera. Lopexene (1991)

Juan y Teodoro Kutz garagardotegia (1991). Hemen zegoen Zubimusu baserria

10. BENTABERRI

Hemen zegoen Bentaberri. Garai hartan maiz Benta soilik deitua. Ondoan zituen Bentatxiki edo Gorriya eta Rafaelene. Horiek Xexene deituriko auzo etxe batek ordezkatu zituen. Bera ere desagertua. Beherago, ezkerretara, Zubimusu zegoen, Ibaetako errekaren gaineko zubi ondoan. Zubimusuko orubean Juan eta Teodoro Kutz anaiek garagardo eta jela fabrika egin zuten 1890 urtean lanean hasia. Zubimusuko zubitik zihoan, Arbizketa baserriaren ataritik barrena, Igeldoko herrirako bide zaharra.

11. ZUBIMUSU PARKEA

Antzinako Ibaetako erriberaren eremu bakarra dugu hau. Hemen Olasagastiene jauregi ederra zegoen. Gero, Jose Lemeryren jabegora pasa zen. Izena El Mirador zuen eta, azkenik, Caudillako kontea jaun boteretsuaren eskuetara pasa zen. Hemen zuen bere etxea, 14 zerbitzari baino gehiagok zaindua. Ondoan, eskuin aldera, Villa Concha zegoen, Maiorgako markesaren jabegoa. 1912tik aurrera Antiguako nesken eskola izan zen.

12. TXALUPAGILLENE

Baserri handi bat zen, famili asko bizi zen, maizter etxea zen eta. Fatxada nagusia zegoen lekuan gaude. Txalupagillenek baratza ederrak zituen ipar aldera, erriberan, Txillardegikoen segidan. Txalupagilleneren fatxadaren aurrean Villa Rosa zegoen, Txillardegi eta Txalupagilleneren artean. Villa Rosa Edmont Possorena zen, La Sirène korseteriaren sortzailea. Gaur gazte aterpea da.

Txillardegiren horma-irudiaren inaugurazioa (2018-01-14)

MEREZIA ZOR

Trunboik jarriak (2017-03-21)

Doinua: **Aita izena kanta beharrak**

I

Gazte askorik somatu zuen
ikastearen taupada
amaren hitzak hazi bihurtuz
izan zitezen landara,
ekin ta ekin, irmoa baitzen,
hornitu zuen ganbara
baita aurkeztu lan borobilak
Arantzazuko hartara
baina halere ez zuten jaso
euskaltzain oso mailara.(bis)

II

Askok modura merezi zuen
igotzea goi gradura
neurtu ezina zenbat, nola zen
ahalegindu gizon hura,
adore osoz bultzatu zuen
euskara, euskal kultura
berpizkundeaz ta hedapenaz
bere gain hartuz ardura
donostiar hau izendatzea
udalak dauka eskura.(bis)

III

Zein dira hoiek, nork hautatuak
zer dute onik agertu?
Donostiari emandakorik
ez daukagu zer eskertu,
euren leloaz, diru goseaz
gaituzte denok aspertu
erauntsi hoiek, oldar aldiak
bitez agudo atertu
horiengatik ezin duzue
Txillardegirik baztertu.(bis)

IV

Merezimenduz nor izendatu
ederki asko dakite
Txillardegiri tokatzen zaio
ta jaso dute enbitte,
esku eskura dute ahalmena
udalak erraz legike,
beste horiei nork egin die
kultur arlora konbite?
Alkate omen udal burua
agintzen, baina, COVITE!!!.(bis)



Txillardegiren VII. urteurrena
2019-01-14
Inprenta Muñagorri

txilardegi.indd 12 08/01/2019 21:28:43